

Honako atalean, balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu.

Gure enpresak hainbat baliabide edukiko ditu bezeroekin komunikatzeko; alde batetik, kartel publizitarioak egingo ditugu eta horrez gain, ibilgailu publikoetan propaganda jartzeko aukera eskuratuko dugu.

Beste alde batetik, web orri bat sortuko dugu eta bertan gureganako informazio erakargarria jarriko dugu, eta gure proiektua azalduko dugu nahi duenak eskuragarri izan dezan.

Telebistan ere iragarki bat sortuko dugu eta dirua inbertituko dugu iragarkian, jende gehiagok ikus dezan.

Bukatzeko, irratia elkarriketa bat lortuko dugu gure proiektua aurrera eramateko eta hai buruz hitz egiteko.

